

HAUR BAT ESPAZIOAN

Ana Jaka

Munduan badira kolore askotako pertsonak: laranja, arrosak, marroiak... Batzuk ilunagoak gara eta beste batzuk argiagoak, eta egon badaude ia-ia kolorerik ez dutenak ere, denetarik egon behar duelako munduan.

Eta, agian horregatik, haur txuri-txuri bat jaio zen herri txiki batean. Hain zen txuria, gurasoek ilargi izena jarri zioten, ilargi betearen argitasuna zuelako haren azalak. Ilea ere txuria zuen eta begi urdin argiak, ur garbiaren kolorekoak.

Haur guztiak bezala, alai bizi zen ilargi, baina, besteek ez bezala, ez zuen eguzkia gustuko. Izan ere, bere azal txuriari eta bere begi argiei min egiten zieten eguzkiaren printzek, oso sentiberak baitziren. Txiki-txikitatik beturreko ilunak eramaten zituen eta krema babeslea ematen zuen aurpegi, beso eta hanketan.

Ilargiri benetan gustatzen zitzaiona gaua zen. Gauean eguzkiak bakean uzten zuen. Eta izarrak ateratzen ziren. Izarrak urrutiko eguzkiak dira, eta, urruti daudenez, haien argiak ez du mintzen. Ilargik guztien izenak zekizkien, hainbeste maite zituen izarrak.

Sei urte bete zituenean teleskopio bat oparitu zioten gurasoek, eta umerik zoriontsuena izan zen. Gauak ematen zituen teleskopiotik begira, bere koadernotxoan oharrak idazten eta marrazkiak egiten. Egunen batean astrofisikari handia izango zen ilargi, edo astronauta.

Unibertsoa inork baino hobeto ezagutzen zuen, eta herriko beste haurrek mirestu egiten zuten horregatik. Lagun onak ziren, asko maite zuten. Eguzkiak asko berotzen zuenean, itzalpean egoten ziren denak, ilargirekin jolastu edo galaxiez eta kometez kontatzen zizkien istorioez gozatzeko.

Egun batean, bere ametsa betetzera baletor bezala, lehiaketa baten berri izan zuten herrian. "Haur bat espazioan" izeneko programa bat abian jarria zen. Hurrengo bidaia espazialean haur bat joango zen! Eta hura aukeratzeko azterketa egingo zen hiriburuan.

-Zuk izan behar duzu! -esaten zuten denek. Zalantzarik ez zuten. Ez zen mundu guztian ume prestatuagorik egongo espaziora joateko. Eta jakin bazekiten, gainera, zelako ilusioa egiten zion.

Herri osoa ilargirekin zegoen, eta lagundu egin nahi zion.

Eskolako zuzendariak jaieguna eman zien azterketa-egunean berarekin joan nahi zuten guztiei, eta autobus gidariak bere autobusa eskaini zuen. Ilargi urduri zegoen, baina bere lagunak ondoan edukita lortuko zuen!

Eta horrela, eguzkia atera baino lehen, goizean goiz, hiriburura abiatu ziren denak autobusean.

Oso bidaia dibertigarria izan zen. Planeta eta galaxiei buruzko abestiak kantatu zituzten, eta galdera-erantzunen jokoan aritu ziren. Klase-egun batean baino askoz gehiago ikasi zuten egun hartan autobusean zihoazen umeei zein helduek.

Azterketa egin behar zen gelara iritsi zirenean, baina, atezainak aurre egin zien.

-Nor da lehiaketan parte hartu behar duena?

-Ni! -esan zuen ilargik.

Atezainak burua ezker-eskuin astindu zuen.

-Ez da posible. Betaurrekoekin ezin da espaziora joan.

-Zergatik? -galdetu zuten denek aho batez.

-Arauek horrela diote -erantzun zuen atezainak. Eta horman jarrita zegoen kartelera zuzendu zuen hatz erakuslea.

Ilargiren irakaslea kartelera hurreratu, eta irakurtzen hasi zen:

"Supersonik 2017 HASTRN espazio-ontziko arautegia:

>>Sarrera debekatua metro bateko altuera ez duen haurrari.

>>Sarrera debekatua 50 kilo baino gehiago pisatzen duen haurrari.

>>Sarrera debekatua bi hankak neurri berekoak ez dituen haurrari.
>>Sarrera debekatua belarriak burutik bost zentimetrora iristen zaizkion haurrari.
>>Sarrera debekatua betaurrekoak, audifonoak, taupada-markagailuak edo beste edozein aparatu behar duen haurrari."

Horiek eta antzeko zientoka debeku zeuden bertan idatziak. Irakaslearen aurpegia gorritzen hasi zen, gero eta gehiago, irakurri bitartean. Presio-eltzea zirudien haren buruak, une batetik bestera eztanda egingo zuena. Irakurtzeari utzi, eta atezainari zuzendu zitzaion:

-Baina zer tontakeri-kaka-lerdo-ergel-babo-txatxu-pito pila da hau??!!

Hain biziki eta konbentzimenduaz esan zuen, atezaina izutu eta dena egin zen.

-Arauak... -hasi zen.

Baina inork ez zion kasurik egin. Ume batzuk ezkerretik, beste batzuk eskuinetik eta gainontzekoak atezainaren hanka azpitik, denak sartu ziren azterketa-gelara. Eta ez bakarrik herritik autobusez joandakoak, lehenago iritsitako beste haurrak ere sartu ziren gelara: 50 kilo baino gehiago pisatzen zuena, metrora iristen ez zen txikitxoak eta sarrera debekatu zieten beste guztiak.

Barruan aztertzailea bakarrik zegoen. Hainbeste ziren debekuak non azterketa egin nahi zuten guztiak kanpoan gelditu ziren. Aztertzaileak gelara sartutako haurrak aztertu zituen, eta konturatu zen ez zegoela arau guztiak betetzen zituen haurrik. Espazio-ontziak muga gehiegi zituen...

-Um... -esan zuen aztertzaileak-. Beno, aldaketa batzuk egin daitezke espazio-ontzian. Um... eserleku handiagoa edo txikiagoa jar dezakegu. Um... edo betaurrekoak ondo lotu. Um... Ados. Nahi duten guztiek azterketa egin dezakete.

Ume guztiak txaloka hasi ziren.

-Besteak kanpora atera mesedez -gehitu zuen aztertzaileak.

Ilargiren lagunak gelatik irten ziren, pozik eta, aldi berean, urduri. Orain dena Ilargiren esku zegoen.

Zazpi ume gelditu ziren barruan, Ilargi haien artean. Eta Ilargik azterketarik hoberena egin zuen. Baina bera irabazlea zela esan ziotenean ez zen, denek espero zuten bezala, poztu.

-Zer gertatzen zaizu, ume? Irabazi egin duzu! -esan zion aztertzaileak.

-Bai, baina... -hasi zen Ilargi, eta lehiakideei begiratu zien. Ume laranja, arrosa eta marroiak zeuden, lodiak eta argalak, ipurtarinak eta lasaiak. Denak ezberdinak, baina denak ilusio bera zutenak: espaziora bidaiatzea. Eta esan zuen:

-Nik ez dut bakarrik bidaiatu nahi. Ez al dago zazpiontzako lekua espazio-ontzian?

Ilargik bazekien unibertsoa oso handia dela, eta lagunengandik oso urrun egongo zela, eta batzuetan beharko zuela txiste bat kontatu edo besarkada bat jaso, edo norbaitekin barre edo negar egin.

Denak isilik gelditu ziren. Baita aztertzailea ere. Egia esan, azterketa guztiak oso ondo eginak zeuden...

-Um... -hasi zen.

-Tira -esan zuen Ilargiren lagun batek- eserleku batzuk gehiago jarri eta kito!

Atezaina arauak zirela eta ez zirela hasi zen. Baina aztertzaileak ez zion kasurik egin.

-Um... Ados. Eta "k" bat gehituko diogu programaren izenari -esan zuen irribarretsu-. "HaurraK espazioan"!!

Eta horrela, espazio-ontzia ongi prestatu zutenean, zazpi astronauta txikiak abiatu ziren bidaian. Izar artean ibili ziren aste pare batez, oporraldian baleude bezala. Argazki pilo bat atera zuten, eta marrazkiak egin zituzten, eta mila esperimentu. Eta oso lagun onak egin ziren.

Ilargik ez zuen bidaia hori sekula ahaztuko, ez bidaian egin zituen lagunak, ezta bidaia hori posible egin zuten herriko lagunak ere.